

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko urtarrilak 27 · 1256 zenbakia

MUNDUKO JUGGER JOKALARI ONENEN ZAIN



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA



ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izalea
- ✓ Aktak egitea




KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jauntantza
 - Udala



LEGE AHOHKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enereklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen erakuntza



24 ORDUKO ZERBITZUA
Zure eskura jarzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 ordutan

30 URTEK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.
Tel. 943 20 17 03
Fax. 943 70 20 49
m_ari_sanz@hotmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

zarelako para

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

 **eta kitto!**
euskara elkartea

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Jarraitu gaitzazu!



Eibarren jokatu da, uztailen, klubean arteko 2023ko Juggerreko Munduko Txapelketa. Arima Galduak herriko taldeak bultzatuta egingo da ekimena, Udalaren laguntzarekin, eta Jessica Ots Eibarko taldearen kidea ilusioz dago uztaileko zitaren aurrean.

Astlehenean aurkeztu zituzten XLVI. Eibarko Antzerki Jardunaldiak. Aurtun, Hezkuntza Esparruko aretoa berreskuratuta eta, beraz, Coliseo antzokian eta Unibertsitate Laboralean, bietan eskainiko dira programa osatzen duten lanak. Otsailaren 14an hasiko dira Antzerki Jardunaldiak, Maria Adanez eta Pepon Nieto aktoreek 19:00etan Coliseon eskainiko duten solasaldiarekin.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILERA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILERA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

@ayameeechan

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Egogain zentrutik esker onez

Egogain Zentroak azken Gabon jaietan gure zentrorra dantza egitera, kantura, animatzera eta, azken batean, emozioak piztera eta ilusioa ematera etorri direnei eta herriko taldeei eskerrak eman nahi dizkie. Jai horiek ez zirelako berdinak izango zuen parte-hartzerik gabe. Eskerrik asko.

Pedro Bilbatua (Egogaineko Eskuhartze Psikosozial Programako koordinatzailea)

Astean esanak



Espainian hirutik bik euren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela diote. Baina, aldi berean, portzentaje berean uste dute Espainia pikutara doala. Badirudi oso gustokoa dugula ezkortasun kolektibo hori. Udazken beltza pronostikatu zuten, gasolina 3 eurotan egongo zela eta bidaiatzeko dirurik ez genuela izango zioten gehienek; baina hotelak goraino bete dira. Hemen ere, zenbat eta txarrago, hobeto? Edo hipokrita hutsak garelako esaten ditugu halakoak?

ALEXIS ALGABA, zutabegilea

Nor dago prest edozein baldintzatan lan egiteko? Bizi-kalitateaz hizketan betetzen zaigu ahoa, baina lau sosen truke lan egitera behartu nahi dugu bat baino gehiago. Ez du balio garai batean edozein baldintzatan lan egiten zenuela esateak, esaldi hori minetik eta atsekabetik esaten baitugu. Gure egin genuen duintasun falta ez dute ondorengoek pairatu behar. Duintasun falta da konpondu behar dena eta ez gazteen lan egiteko gogo-neurgailua sortu.

GARAZI KAMIO, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDO BE ONDO → Oso ondo, ederto. “Lehelengo tantuetan ondo be ondo jokatu eban”.

ONDO BIHARRIAN → On beharrean, hobe beharrez, asmo onarekin. “Ondo biharrian esan netsan, baiña txarto hartu estan”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 27
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 30
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 31
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
EGUENA 2
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Luis Lluvia Carrasco**. 63 urte. 2023-01-19.
- **Juana Minguez Arrillaga**. 86 urte. 2023-01-19.
- **Maria Pilar Elorza Elkoro**. 95 urte. 2023-01-21.
- **Jorge Iturricastillo Ugalde**. 67 urte. 2023-01-21.
- **Elisardo Teresa Romero**. 82 urte. 2023-01-22.
- **Alfonso Perez Dieguez**. 65 urte. 2023-01-23.



Bilduk 37 zuzenketa egin dizkio sozialisten udal aurrekontuaren zirriborroari

Astelehenean amaitu zen udaleko alderdi politikoei 2023ko aurrekontu zirriborroari proposamenak aurkezteko epea eta EH Bilduk 4 milioi euro baino gehiagoko balioa duten 37 zuzenketa partzial erregrastratu ditu, martitzen goizean Gorka Errasti taldeko bozeramaileak jakitera eman zuenez. Azken urteotako martxan, proposamenak hainbat bloketan banatu dituzte: Kultura eta sormena; Aisialdia, herriko eragileak eta Parte-hartzea; Gizarte Ekimenak; Hirigintza eta Irisgarritasuna; Landa eremua eta Lehen Sektorea; eta Energia eta udal langileria.

Horiek dira EH Bilduk azpimarratu nahi izan dituen gaiak. Errastiren berbetan, alderdi sozialistarekin "negoziaketarako eta akordio batetara iristeko erabateko prestutasuna" daukate, nahiz eta oraindik ez duten horretarako bilerarik egin. Errastiren berbetan, "45.800.000 euro inguruko aurrekontu zirriborroa aurkeztu du PSEk 2023rako, iazkoa baino %6 handiagoa. Pertsonal eta Gastuen kapituluek izango dituzte igoera

handienak. Hirigintza eta Obra saileko aurrekontuetan jaitsiera eman da, ziurrenik aurreko urteetatik oraindik garatu gabe dauden proiektuak aurrera atera ezinean dabilelako Udal Gobernuak. Deigarria da aurten ere eskilara eta igogailuen mantenimendurako partida milioi erdi inguruan estankatuta geratzea, karga handia udal kutxentzat". Bilduren ustez "berrikuntza handiegirik ez dago. Deigarriena, behingoz Andretxea Berria azaltzea da. Badirudi Eibar-ko mugimendu feministak eta berdintasunaren alorrean dabilzan eragileek merezi duten espazio berri, duina eta ikusgarria martxan izango dutela behingoz". Bestalde, azpimarratu nahi dute energia eta erregai gastuetan emango den igoera "eskandalagarria" begitanzten zaiela: "Bada honi buelta emateko ordua eta horretarako hainbat proposamen egin ditugu. Iaz energia eta erregaietarako 765.000 euro aurreikusi ziren, eta aurten 2 milioi euro planteatzen dira, beldurgarria". Proposamen guztiak Bilduren web orrian daukazue.

Trafikoarentzat itxiko dute kalea bihar Egogain eta Untzaga bitarteko zatian

Egogain kaleko 3. zenbakiko erai-kuntza-obrako garabia desmuntatzeko lanak direla eta, bihar (zapatua) 08:00etatik 17:00etara bitartean, kale horren eta Untzaga plazaren arteko tartea itxita egongo da ibilgailuentzat. Trafiko guztia San Andres pasealekutik desbideratuko da.



Jardiñetako sarbidea 9 hilabetez itxiko dute

Blas Etxebarria kaleko etxe berrien inguruko kaleak urbanizatzeko lanak hasi direla eta, Jardiñeta kaletik Pagaegi eta Muzategi kaleetarako sarbidea itxita egongo da bederatzi hilabetez.



Saharako errefuxiatuen argazkiak Topalekuan

Bihar zabalduko dute Topalekuan Jose Luis Irigoienek "Errefuxiatu saharaiuen kanpamenduak" argazki erakusketa. Otsailaren 19ra arte egongo da ikusgai, egunero, 19:00etatik 21:00era.



Gazteen Gurutze Gorriaren tonbolako laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia

Abenduan antolatu zuten Tonbola Solidarioarako egindako dohaintzen-gatik eskerrak emateko ekitaldia egin zuen domekan Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriak. Ekitaldia Torrekuako anbulatorio zaharrean izan zen eta bertan diplomak banatu zizkien enpresa, erakunde eta emaile partikularrei. Untzagan saldatako rifei esker guztira 3.560 euro bildu dituzte eta diru hori Gazteen Gurutze Gorriaren proiektuetara bideratuko dituzte. Zozketarako opariak eman zituzten enpresa eta

bestelakoei eskerrak emateaz gain, modu berezian eskertu nahi dute La Salle Eibar ikastetxearen laguntza, "bildutako 647,45 euroko zenbatekoa dohaintzan emateagatik. Baita Tonbola Solidarioan parte hartu zuten pertsona guztiei ere, haiek gabe ezin izango baitzen ekimen solidario hau gauzatu, eta, jakina, Tonbola Solidarioaren muntaketan eta funtzionamenduan parte hartu zuten boluntario guztiei, haien lanik gabe ez baitzen horrelakorik posible izango".

Uztailetik itxita egon den Orbea kiroldegiko spa zerbitzua berriz martxan

Bakteriarik ez dagoela ziurtatu eta gero, eguaztenean zabaldu zuten berriz ere Orbea kiroldegiko spa, lehengo baldintza berberetan. Bestalde, urteko bonua dutenei zerbitzua itxita egon den hilabetei dagokion dirua itzuliko zaie. Ildo horretan, 2023ko bazkidetza berriak egiteko epea zabalik dago.



Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa itxi egin dute

Udaletxeko beheko solairuan dagoen Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB) itxita dago eta, oraingoz, horrela jarraituko du, besterik jakinarazi arte. Hala eman dute aditzera Udaletik. Birtartean, kontsultaren bat egin nahi duenak emailez izango du horretarako aukera, omic-kiub@eibar.eus helbide elektronikora idatzita. Esan dutenez, jasotako zalantzak eta galderak "ahalik eta azkarren erantzungo dira".



Txistorra Eguneko sari nagusia banatu dute

Eibarko Txirrindulari Elkartekoen aurreko astean eman zioten saria Txistorra Egunean egindako zozketako irabazleari: Gaizka Ibarzabalek Oberena harategiak emandako 200 euroko erosketa-txartela jaso zuen Jose Maria Jimenez harategiko jabearen eta Angel López elkarteko presidentearen eskutik. Zorionak!



Ipuruako anexoko zelaiak erabilera publikoa izango du asteburuetan

Ipuruako Udal estadioaren ondoko zelaiak erabilera publikoa izango du asteburuetan. Herrian foballean aritzeko erabilera libreko espaziorik ez dagoela eta, premia horri erantzun nahi izan diote horrela. Asteazken zehar anexoa Eibar KTren oinarrizko foball taldeek eta emakumezkoen lehen taldeak erabiltzen dute, baita Eibar Rugby Taldeak eta Multikiroletako hainbat taldek ere. Baina asteburuetan erabili ahal izango da zelaiak, 10:00etatik 21:00etara, “baldin

eta klubek partida ofizialak jokatzeke edo entrenatzeko erabiltzen ez badute”. Ezingo da erabili, ezta ere, arrisku handikotzat jotzen den Eibar Foball Taldearen partidua dagoenean: “Kasu horretan, instalazioa partidua hasi baino 3 ordu lehenago itxi beharko da, eta partidua amaitu eta ordubetera zabalduko da berriz ere”. Bestalde, espazioa beti baldintza onetan egongo dela bermatzeko ezarri dituzten arauak bete beharko dituzte erabiltzaileek.

Untzagako dorretxe zaharreko arkabuzariaren irudia zaharberrituko dute

Orbearren Untzagako dorretxeke fatxada nagusiaren balkoia apaintzen zuen arkabuzariaren irudia berritzeko lanak hasiko dituzte astelehenean. Horrela erabaki zuen Ego Ibarra Batzordeak iazko uztailean egindako bilkuran, Zehazki, estilo platereskoko fatxadaren erdialdean zegoen balkoi nagusiaren eskuinaldeko arkabuzariaren tortsoa eta aurpegia berroneratuko dituzte. Lanak amaitu ondoren, Armagintzaren Museoan egongo da ikusgai.



Estaziño-Azитайn proiektuaren maketa egiteko eskaera eraman dute Plenora

Astelehenean urtarrilaren 30eko udalbatzan eztabaidatzeko mozioa erregistratu du Lurperatzen gaituen paseari ez- Ekialdea Bai Auzo Elkarteak, Udalari eskatzeko Estaziño eta Azitain arteko zatia jasotzen duen maketa eskalan egin dezala: “Inguruko eraikinak eta gainerako elementuak agertzea nahi dugu. Behin betiko proiektua nolakoa izango den xehetasunez ikusteko, eta jendaurrean

erakusteko, gauzatu nahi den azpiegituraren benetako eragina ikus dadin”. Elkartean kezkatuta daude “jendeari modu gardenean azaldu ez zaion proiektu baten eraginagatik”. Uste dute gardena izateko “kalitatezko informazioa” eman behar dela eta, betiere, herritarrek diotenari kasu eginez, beraien babesa izateko. Udaleko alderdi guztiek maketa egitearen aldeko botoa ematea espero dute.

Antzerki Jardunaldiak ate joka ditugu, teloia altxatzeko irrikitan

Astelehenean aurkeztu zituzten XLVI. Eibarko Antzerki Jardunaldiak Jon Iraola alkateak, Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendariak eta Maria Jose Telleria Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak. Eibarko Udaleko Kultura sailak Narruzko Zezen eta Uni elkartearekin elkarlanean antolatu duen egitarauak, beti bezala, era guztietako antzezlanak ekarriko dizkigu Eibarrera.



Egitarau osoa gure webgunean: eskuragarri



Otsailaren 14an hasiko dira Antzerki Jardunaldiak, Maria Adanez eta Pepon Nieto aktoreen eskutik 19:00etan Coliseon hasiko den “Los papeles del teatro” izenburuko hitzaldi-solasaldiarekin. Aurkezlea, berriz, Irene Hernando antzezle eibartarra izango da. Hortik aurrera, eta martxoaren 31ra bitartean, hogeitaz antzezlan baino gehiago taularatuko dira gure herrian. Berrogei egunez, antzerkiari eskainitako egitarau zabalarekin gozatzeko aukera aparta izango dugu: tragedia, komedia, keinu antzerkia, dantza, zirkua... Beste behin, ikusleen artean egon daitezkeen gusto guztiak asetzeko moduko programa biribila prestatu dute.

Bestalde, azken hiru urteotan pandemiak baldintzatu dituen Antzerki Jardunaldiak sasoi betean egingo dira oraingo honetan: publikoarentzat edukiera osoa berresku-

raturiko dute, baita bi agertoki nagusiak ere. Izan ere, edizio honetako hainbat antzezkitzuzen Hezkuntza Esparruko antzokian izango dira, osasuna babesteko murrizketak ezarri aurretik betidanik egiten zen bezala.

Jardunaldiak inauguratzeko egingo den solasaldiaren ondoren, otsailaren 15ean eta 16an, “iAy Carmela!”, Maria Adanez bera eta Pepon Nieto protagonista dituen tragikomedia ikusi ahal izango da Coliseon, 19:00etan.

Edizio honetako programa osatzen duten lanen inguruko xehe-tasunak ematen hasi aurretik, konpainia ezberdinek aurkeztuko dituzten lan guztiak kalitatezkoak, ikustea merezi dutela nabarmendu zuten antolatzaileek. Beste edizio batzuetako bideari jarraituz, lanetako asko estreinatuta berri ailegatuko zaizkigu: Mar-Mar Teatro konpainia bizkaitarraren “Arrainak



Astehenean udaletxeko pleno aretoan egindako aurkezpen ekitaldian, agintari eta antolatzaileez gain, edizio honetan parte hartuko duten hainbat lagun ere egon ziren. SILBIA HERNANDEZ

bihotzean” gaur bertan taularatuko dute estreinekoz, Berrizen. Getari Etxegaraik zuzendutako lana hau-
rentzat da eta antzezleen artean Irene Hernando eibartarra dago. Mikel Areitioaurtenaren zuzendaritzapean Juanma Cano eta Maite Lorenzo eibartarrak protagonista dituen “Vida” ere La Red Teatrorren lanik berriena da eta Jardunaldietakoa bigarren saioa izango da.

Eta, bi adibide horietan argi ikus daitekeenez, egitaraua osatzerako orduan Eibar eta inguruko konpainia zein antzezleei tokia egiten ahalegindu dira: Vaiven konpainiak gaztelerazko zein euskarazko bertsioan taularatuko duen “Redada familiar” / “Familia sarekada” komedian Nerea Gorriti eibartarra beste aktore ezagun batzuekin batera lanean ikusteko aukera izango dugu. La Dramática Errante talde bizkaitarrak, bestalde, amatsunaren gaiari heldu dio “Yerma”

Pandemiaren ostean, normaltasun osoz egingo dira Antzerki Jardunaldiak berri ere: edukiera osoa eta Hezkuntza Esparruko antzokia berreskuratu dira

izenburukoan, drama euskaraz eskaintzeko. Eta euskarazko tragikomediarekin etorriko zaizkigu Ados Teatroa&Bidebitarte Koop. gipuzkoarrak: “Lagun beltz asko” Garbi Losadak zuzendutako komedia beltza da eta Ramón Ibarra,

Asier Hormaza eta Asier Sota aktoreak dira protagonista. Eta, tragikomediekin jarraituta, “El nadador de aguas abiertas” aurkeztuko dute K Producciones (Bizkaia) eta Tanttaka (Gipuzkoa) konpainiek.

Eta umorearentzat tarteak ere izango da: labetik atera berria den euskarazko komedia aurkeztuko digu Txalo Produkzioak konpainiak, Itziar Ituño eta Ramón Agirre protagonista dituen “Hobe ixilik!”. Bizkaiko P6 Gazte Konpainiak, bestalde, Iñigo Cobok zuzendutako “Rey desnudo&chico muerto” taularatuko du. Eta ohiko antzerkitik aldentzen den “Pin Pang” izenburuko proposamena ekarriko digu Xabier Larrea markinarrak: familia osoa entretenitzeko moduko keinu bidezko zirkua.

Aipatutakoez gain, beste hauek ikusi ahal izango dira: “Ser o no ser” (Okapi Producciones); Osak eta Mujikak zuzendutako “Abun-

Bihar goizean zabalduko da sarrerren aurrealmenta, Coliseo antzokian zein Internet bitartez



dance” dantza ikuskizuna; “Los días ajenos”, Bob Pop ezagunaren baka-
rriketa; “Las que limpian”, A Pana-
daria (Galizia) & Centro Dramático
Nacional konpainiaren komedia;
“Marea baja” (Pez Limbo, Araba);
“Cigarreras”, Contraproduccións
taldearen drama; “Paura” (Lucas
Escobedoren zirku ikuskizuna); “El
avaro” (Ricardo Iniestaren kome-
dia, Sevillako Atalaya Teatroyen es-
kutik); “La lengua de las mariposas”
(Sarabela Teatro); “Es mi palabra
contra la mía”, Luis Piedrahitaren
bakarriketa; eta “EcO”, Jaengo
Ymedioteatro-ren keinu bidezko
ikuskizuna (Jaen).

Sarrerren aurrealmenta

Sarrerak saltzeko sistema aldatu
egin dute aurretik erosi nahi dute-
nentzat: lehen egunetan egon ohi
diren ilarak saihesteko, aurren hit-
zordua eskatu beharko da sarrera
bila joan aurretik. Atzo izan zen



Edizio honetan ere arreta berezia ipini dute egitaraua osatzeko orduan eta, eibartarrekin batera, beste euskal aktore eta taldeek presentzia handia daukate.

horretarako lehen eguna eta gaur
ere eska daiteke, Coliseon, 17:30etik
19:30era. Sarrera jasotzera, berriz,
bihar, etzi eta etzidamu joan dai-
teke, 10:00etatik aurrera. Eta, as-
telehenetik aurrera, astelehen eta
barixakuero egongo da sarrerak
aurrez erosteko aukera, Coliseoko
leihatilan, 17:30etik 19:30era. In-
ternet bidezko salmenta, berriz,
bihar hasiko da, 10:00etan, tic-
ket.kutxabank.es/janto bitartez.

Horrez gain, funtzio bakoitza hasi
baino ordu bete lehenago, lan bakoit-
zari dagokion antzokiko leihatilan
ere egongo da sarrerak erosteko
aukera.

Azken urteotan bezala, Lekim
Animazioak taldekoak ibiliko dira
asteburuan kalean, Antzerki Jardu-
naldiak ezagutzera ematen. Aur-
tengo kartelaren irudia, bestetik,
Leire Kareaga Udal Dibujo Esko-
lako irakasleak egin du.

Opil bedeinkatuen usainean



Euskal Herri guztian dagoen ohitura honek Eibarren indar handia du. Aspalditik eramaten dituzte eibartarrek mezetara euren Sanblas opilak bedeinkatzera santuaren egunean, otsailaren 3an. San Blas eztarriko minak eta gaixotasunak osatzen laguntzen duen santua dugu. Baina opilak bakarrik ez, lepoan ipintzeko sokak ere bedeinkatzen dira. Dena dela, azken ohitura horrek ere hainbat aldaketa bizi izan ditu, sasoi batean opilekin batera laranjak ere eramaten zirelako elizara.

Gerra aurrean egun horretan "Isasiko Santa Inesera joaten zen jendea, komentura", Julio Lapeyrak "Eibarko Elkarte Gastronomikoak" liburuan esaten zuenez. Santa Ineseko ermitan santu horren irudia edo imajina gordetzen zutelako: "Bertara kanpoko jendea ere etortzen zen". Geroago komentu horretatik San Andres parrokiara jaitsi zuten irudia.

Gaur egunean egiten dituzten opilak, bestalde, denbora batean dirudunek jaten zituzten bezalakoak dira. "Gu umeak ginela, etxe aberatsetakoek edo ekonomiaz hobeto bizi ziren familietakoek bakarrik egiten zituzten horrelako opilak" zioen baita Juan San Martin berak ere. Beharginek eta aberatsak ez zirenek beste era bateko sanblasa jaten zuten: gainean sagar zatiak, okaranpasak eta mahaspasak zituztenak. Dena dela, gainean zuria duena baino ez da jaten gaur egungo Eibarren. "Lehenagoko opil haiek gogokoagoak nituela iruditzen zait", San Martinek bazion ere.

Eskoletan jai eguna izaten zuten goizez

San Blas -edo San Bladi- eztarriko eta arnas-bideko gaitzak sendatzen laguntzen duena da, alde askotan ohitura denez. Eibar eta inguruetan ere uste hori izan da aspalditik. Horregatik, San Blas opila bera bedeinkatzera eramaten zen oihala, eztulik zenean, lepoan jartzeko gordetzen zen; zenbait etxetan oraindik ere horrela egiten da.

Ohitura hori antzinakoa dugu. Lehen lehenago Santa Ines ermitan gordetzen zen San Blas irudia eta hara joaten ziren opilak bedeinkatzera. San Martinek zioenez, "ohitura San Andres parrokiara igarota, bertara



**ISASI
OKINDEGIA**

- Elgetako bidea 9
943 70 07 77

DENDAK

- Ego-Gain, 2
943 20 23 40

- Zabaleta
Bidebarrieta, 10
943 20 02 25

LANTEGIA



**San Andres
Gozolegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Belaunaldiz belaunaldi transmititzen joan den tradizioa dugu San Blas egunekoak.

joaten ginen, opilak ez ezik, laranja ere eramaten genituela. Maiz zalantza larrian irteten ginen, bedeinkazio orduan opilak eta laranja ahelik goren altxatzen genituen arren ia ur-bedeinkatu tantarik heltzen zitzagun ala ez; haurrok uste baikenuen beharrezkoa zela urak ikutzea”. San Blas egunez goizetan eskoletan jai egiten zen orduan.

Kristau martiria, III-IV. mendeen artean bizi izan zen Armeniako Sebaste hiriko apezpikua eta kristau martiria izan zen San Blas. Eremitek egiten zuten bizitza egin zuen Argeus mendiko oihanean zegoen haitzulo batean. Koba hori izan zen bere apezpiku-egoitza eta bertan sendatu zituen zenbait lagun eta animalren gaitzak. Otsailaren 3ko batean arrain-hezur bat kontrako eztarrira joan zitzaien ume bat salbatzea izan zen bere balentriarik handiena eta ospea ekarriko ziona. Ordutik eztarriko gaixotasunen eta laringologoaren patroia bihurtu zuten. Animaliak ere maite izan zituen bereziki. Kristauek bere sasoian jasan izan zuten jarraipenaren biktima ere izan zen eta, horrela, Licinio Erromako enperadoreak aginduta, lepoa moztu zioten. Turkiako Sivas herrian jaioa, Kristoren ondorengo 316. urtean hil zen.



San Blas opilak bedeinkatzeko mezak

Urtero bezala, URKIko elizan, 10:30ean; SAN PIO X.a elizan, 11:00etan; eta AMAÑAKO elizan, 12:00etan.

SAN ANDRES parrokian eta KARMENGO AMAREN elizan (Karmelitan), goizez bedeinkapena egingo dute bakarrik (meza barik), 11:00etan. Bi eliza horietan arratsalde ere bedeinkatuko dira opilak, mezaren ondoren.

Eta AZITAINen eta SAN AGUSTIN elizan ez da mezarik egingo San Blas egunean, baina domekako (otsailak 5) mezan bedeinkapenak egingo dira.



ANDER ARRIZABALAGA • Gazte Koordinadora Sozialista

“Errealitate prekario hau geratzeko etorri da”

Gazte Koordinadora Sozialistak mobilizatu egingo da bihar, urtarrilak 28 –U28–, Bilbon (Jesusen bihotza plazatik) eta Iruñan (Sarasate pasealekutik). ‘Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!’ izango da manifestazioen goiburua.

Deba bailarako GKS-ko lagunak buru-belarri ibili dira mobilizazioen antolakuntzan eta Ander Arrizabalaga kideak horren xehetasunak argitu dizkigu. Gainera, autobusak antolatu dituzte Bilboko manifestaziora joateko eta Debabarreneko jendea eramango duen busa 15:55ean pasako da San Juan kaletik.

Zergatik antolatu duzue U28 manifestazioa?

Gaur egungo testuinguruan, inoiz baino gehiago borrokatzeko eta mobilizatzekeo egoeran gaude; hain zuzen, U28 mobilizazioa egun bizi dugun krisi kapitalistari aurre egiteko pauso bat bezala ulertzen dugu. Gaur egungo langileen ezintasun ekonomikoaren areagotzeak langileon funtsezko bizi baldintzak okertzea eragin du. Horren adibide dira alokairuen, elikagaien eta erregaien prezioen igoerak. Finean, enpresariak eta politiko profesionalak gure pobrezia erantzule gisa ulertzen ditugu, bai gaur egungo auziei erantzuteko ezintasunagatik eta baita beren borondate ezarengatik ere. Laburbilduz, gure helburua langileria-aren interesak erdigunean jarriko dituen programa sortzea da, antolakuntza independentea eta propioa pixkanaka sendotuz eta hedatuz, eta horretarako mobilizatzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu.

Zergatik egin beharko genuke bat manifestazioekin?

Elikagaiak %15,4 garestitu dira urtebetean, gazteen %45,5ak 1.000 euro baino gutxiago kobratzen duen bitartean. Alokairua %41 garestitu da, politikari profesionalek okupazioaren aurkako legea adostu duten bitartean. 21.888 etxegabete eman dira 2022an, gobernuak iruzur hutsa diren diru-laguntzekin aurpegia zuritzen duen bitartean. Bide honetan miseriara kondenatuta gaude. Egoera hau izanik, inoiz baino beharrezkoagoa dugu enpresarien eta politikari profesionalen influentziatik kanpo antolatzea, mobilizatzea, eta gero eta jende gehiagoren parte-hartze politikoa bultzatzea erasoaldiari aurre egiteko. Horregatik, borrokara batzeko deia luzatu nahi dugu. Hau pausoz jositako bide bat da eta, nahiz eta eguneroko lana funtsezkoa izan, mobilizazioak ere ezinbestekoak dira.

Enpresarien eta agintarien erasoaldia aipatzen duzue manifestazioaren goiburuan. Nolako erasoaldia da?

Kapitalismoaren krisi sakona bizitzen ari gara, baina guztiok ez ditugu modu berean sufritzen krisi honen ondorioak. Are gehiago, bankari eta enpresari handiek negozioa egiten ari dira testuinguru honetan. Izan ere, zuzenean eta zeharka langileon soldatak erasotzen ari dira. Horregatik, gure soldatek gero eta balio gutxiago daukate, eta langile askoren ezin-

Informazio
gehiago





Deba bailarako GKS-ko kideek mobilizazioen berri eman dute eskualdean. GKS

“Gure helburua langileriaren interesak erdigunean jarriko dituen programa sortzea da”

tasuna eta larritasuna handitzen ari dira. Hau ez da gertakari neutral bat, hau enpresari handien eta agintarien erasoaldia da: banku zentralena, nazioarteko diru funtsena, energia konpainia handiena, armagintzako enpresena, putre funtse- na, elikagaien korporazio erraldoiena, plataforma eta industria digitalena eta bestelako enpresari handi askorena. Horien diru goseak langileriaren miseria dakar. Azken urteetako esperientziak argi utzi digu egoera hau ez dela aldatuko hilabeteek aurrera egin ahala; ez, errealitate prekario hau geratzeko etorri da. **Zer proposatzen duzue horri aurre egiteko?**

Gazte langileon arteko batasun politikoa sustatzearekin batera, beharrezkoa ikusten dugu enpresari handien eta agintarien erasoaldiari aurre egitea. Horregatik, mobilizatzeo hautua egiten dugu, gazteon artean borrokarako borondatea hedatzeko helburuarekin. Esan bezala,

“Kapitalismoaren krisi sakona bizitzen ari gara, baina guztiok ez ditugu modu berean sufritzen krisi honen ondorioak”

mobilizazio batek ez du enpresarien erasoaldia geldituko, baina gazteon arteko antolakuntza eta borrokarako grina hedatzeko erabili behar dugu. Izan ere, gero eta jende gehiago eta lurralde gehiagotan mobilizatzeo testuingurua sortu behar dugu, baita enpresarien eta politikari profesionalen eraginetik kanpo antolatzeko bitartekoak hedatu ere. U28an egingo dugun manifestazioak norabide horretan kokatzen ditugu. GKS-n, gazte langileontzako erreminta bat garen heinean, helburu horiekin konprometituta gaude eta gazte langileok antolatzen eta mobilizatzen jarraitzeo proposamenak garatzen jarraituko dugu.

“Norbaitekin enpatia izateko ez dago ahalegin handirik egin beharrik”

MAIDER CENITAGOYA • Filosofoa



“El término empatía y su aplicación en la consideración hacia los animales no humanos” liburua aurkeztuko du Maider Cenitagoya filosofo eibartarrak otsailaren 5ean. Ekitaldia Portalea kultur etxeko areto nagusian izango da, 18:00etan.

Filosofian aditua da Maider Cenitagoya eibartar gaztea. UPV/EHUn graduatu ondoren, Filosofia Teoriko eta Praktikoan masterra egin zuen UNEDen. Enpatiari buruzko ikerketa egin du eta gai horrekin lotutako hainbat gogoeta aurkituko ditugu bere liburuan. Zer da enpatia?, Enpatiaz orokorrean hitz egiten dugunean, zergatik hitz egiten dugu gehienetan enpatia faltaz?, Enpatikoak izan gaitezke mundu guztiarekin?, Zergatik gara batzuetan enpatikoak, eta beste batzuetan ez?

Zure liburuan enpatiaz hitz egiten duzu, azken urteetan danon ahotan dagoen terminoaz.

Enpatiaz baino gehiago, gaur egun batez ere enpatia faltaz hitz egiten da. Liburuaren lehen zatian enpatiaz hitz egiten dut, eta terminoari buruz izan zen lehen informazioaz, sinpatiatik bereizten denaz. Aurretik, jakina, enpatizatu egiten zen, baina ez zegoen izenik. Lan honen helburu nagusia enpatia gehiago izateko beharraz hitz egitea da, hau da, gure inguruko izakien lekuan jartzeko gai izatearen beharraz.

Gizakiekiko enpatiaz hitz egiten duzu, baina baita gizaki ez diren animaliekikoaz ere...

Liburuan, gizakiak ez diren animaliekiko enpatia izateko aukerak biltzen saiatzen naiz, eta gure ekintza enpatikoen bidez noraino hel gaitezkeen aztertzen dut. Pertsonekin enpatikoak izan gaitezke, eta frogatuta dago izan gaitezkeela (zailtasunen bat ez badugu behintzat). Eta argudiatzen dut beste zein animaliarekin enpatizatu dezakegun. Beraz, gizakiak ez diren animaliekiko enpatia zabaltzeko aukerei buruz hitz egiten dut, hori baita nire intereseko gaia.

Zertan datza animaliekiko enpatia? Nola enpatizatu dezakegu egunerokoan gizakiak ez diren animaliekin?

Zailtasun asko daude, ez baita gauza bera enpatia izatea txori batekin edo bizi zaren txakur batekin. Askotan, nahikoa da animalia horiek gure praktika batzuegatik sufritzen ari direla ulertzea, eta animalia horiekiko dugun portaera aldatzen saiatzea. Haiek guk dugun gaitasun hori ez dutenez, gutxienez haien lekuan jartzea eta gertatzen zaiena bidezkoa den baloratzea. Guk kalte egiten diena eta eragiten diena

“Enpatizatzeko gaitasuna denok daukagu eta liburuan hori azaltzen saiatzen naiz”



aldatzeko aukera dugunez, euren egoera hobetzen saiatu behar dugu. Baina liburuan ez dut esaten, ezta gutxiago ere, beganoak edo barazkijaleak izan behar dugunik. Ez ditut gai horiek ukitu, gai delikatua iruditzen zaidalako, oso ondo aztertu, landu eta ikertu beharrekoa. Nirea gogoeta besterik ez da. Bakoitzak baloratu ditzala bere ekintzak eta, gero, ikusiko du aldatu nahi dituen ala ez. Ez da inolako inposaketa, inondik ere.

Liburuan argi eta garbi esaten duzu denok dugula enpatikoak izateko gaitasuna.

Enpatizatzeko gaitasuna denok daukagu eta liburuan hori azaltzen saiatzen naiz. Ez badugu egiten, ez badugu enpatizatzen, interesatzen ez zaigulako edo nahi ez dugulako da. Baina enpatizatu denok egin dezakegu, eta ez da zaila. Batzuetan oharkabeen enpatizatzen dugu: telebistan zerbeit txarra gertatu zaion norbait ikustean enpatizatzen ari gara. Gizakiak enpatikoa izateko joera du; beste gauza bat da enpatikoa izan nahi duen ala ez. Jasotako heziketarekin ere zerikusi handia dauka enpatiak, eta gai horri buruz ere hitz

egiten dut. Zein hezkuntza mota jasotzen duzun, enpatia gehiago edo gutxiago izango duzu. Batzuk sensibilitate handiagoa dute, gauzek gehiago eragiten diete, eta beste batzuk hotzagoak dira. Baina gaitasuna denok daukagu, buru-nahaste edo arazo neuronalen bat duten pertsonak izan ezik. Era berean, enpatiak laguntzarekin zerikusia dauka. Zerbait bidegabea dela iruditzen bazait, bigarren urratsa egoera horren aurka egitea izango da. Egunerokoaz ari naiz, zailtasunik gabe egin dezakegunaz. Liburuan, hasieran, pertsonen inguruan dihardut, eta, gero, gehiago saktzen dut gizakiak ez diren animalietan.

Zerk bultzatu zaitu gai hori aukeratzera?

Filosofian graduatu eta gero, Filosofia Teoriko eta Praktikoan masterra egin nuen, eta etika moralaren esparruaren baitan giza harremanak nola lantzen ziren ikusi nuen. Giza portaerei buruz hitz egiten duten Kant edo Nietzsche bezalako filosofoek liluratsen naute. Beti interesatu zaizkit era guztietako gizarte-harremanak, eta horregatik, hain zuzen, bitxia iruditu zait lan hau gizartean enpatia erabiltzearen

bidetik gidatzea, uste baitut gure harreman enpatikoen bidez giza harreman asko azal daitezkeela. Enpatiaren gaia burura etorri zitzaidan, gaur egun asko erabiltzen den terminoa delako, baina, batez ere, haren faltagatik. Hitz horrek gauza asko biltzen ditu, besteak beste, "utzi pixka bat zure pentsamenduak eta zure egoera eta jarri beste pertsonen egoeran, utzi zugan pentsatzeari". Lan honetan saiatzzen naiz jakiten zergatik enpatizatu behar dugun gehiago izaki bizidun guztiekin eta zer onura atera ditzakegun ekintza horietatik. Eta zergatik enpatizatzen dugun batzuekin eta beste batzuekin ez. Norbaitekin empatia izateko ez dago ahalegin handirik egin beharrik. Askotan, norbait entzutearekin enpatizatzen ari gara. Une batez norbaiti ulertzea da kontua, eta ahal duzun moduan laguntzen saiatzzea. Eta gaur egun horren falta dago, jendeak ez baitu entzuteko, laguntzeko joerarik. Denbora gutxirekin bizi gara, eta gauza horiek galdu egiten dira.

Gero eta berekoiagoak gara?

Berekoikeria hitzak oso konnotazio negatiboak ditu, baina nik ez dut horrela ikusten. Gure buruari eta gure intereseei begiratu behar diegula uste dut, baina geure baitan itxi gabe. Azkenean, nork bere burua zainduz eta nahi dugun bezala bizi behar dugu. Hori bai, ez dut ondo ikusten guztiz berekoia izatea, baldin eta gizartean bizi nahi badugu. Gai hori asko interesatzen zait. Izan ere, filosofiaren munduan dilema bat dago, gizakia berez berekoia ote den. Mutur bat bezala ikusten da, baina nik ez dut horrela ikusten, ez dut gauza txar gisa ikusten.

Hezkuntzaren gaia ere ikutzen duzu...

Gai hori ere asko interesatzen zait. Hezkuntza tradizionalarekin jarraitzen dugu, gizartea aurrera egiten ari den arren. Orain, hezkuntzaren lege berriarekin, enpatiaren gaia ikasgaiaren batean sartu dute, baina oraindik bide luzea dago egiteko.



“Gure buruari eta gure intereseei begiratu behar diegula uste dut, baina geure baitan itxi gabe”

“Utzi pixka bat zure pentsamenduak eta zure egoera eta jarri beste pertsonen egoeran”



JAIONE YEREGI

Gozatu mendian

Jakina da gure herrian mendira joateko dagoen zaletasuna. Are gehiago konfinamendua malgutu zigutenetik. Kalera irteten utzi zigutenean, inguruko mendiak jendez bete ziren. Gaur egun zaletasun horri eusten dion hainbat eta hainbat pertsona dago. Baina mendi buelta edo trabesia bat egiteko orduan, eraman beharreko elikagai eta mantenugairik egokienak zeintzuk diren izaten da zalantzarik handiena.

Ibilbidea distantzia eta intentsitate ertain edo baxukoa bada, ez da hain beharrezkoa elikagairik jatea. Bai, ordea, ibilbidea bukatu ondoren oxidazio zelular eta giharren errekupeziarako.

Elikadura ez da berdina izango egunerokotasunean, irteeraren aurreko egunetan eta irteerako egun berean.

Egunerokotasunean, gure elikaduran sartu beharrekoak dira: barazkiak, kalitatezko proteinak (arraina, arraultzak, okela, lekaleak...); koipeak (animalia nahiz landareetatik eratorriak, fruitu lehorrak, haziak...); karbohidratoak (zereal osoak, kalitatezko ogiak, tuberkuluak...); eta fruta freskoak.

Irteerako egunean, kontuan izan gihar-lana eta liseriketa- edo digestio-lanak elkarrekin ez datozela bat. Beraz, gihar-lana egitean, hobe liseriketa-lan gutxi edo batere ez izatea.

Garrantzitsuena, irteerari ekin aurretik ganoraz gosaltzea da. Irteerak lau ordu baino gutxiagoko iraupena badu, ez da beharrezkoa ezer jatea. Zerbaiten beharrean aurkituz gero, zerbait arina eta azukreduna izatea komeni: platano bat adibidez. Inoiz ez jan aldapa gora hastear zaudenean, ez eta sprint bat egin behar denean ere. Ibilaldia bukatzeaz dagoenean edo bukatutakoan jan. Eserita, ondo murtzikatuz eta patxadan jan. Izerdituta bazaude, kontuz, hoztu gabe.

Ekidin elikagai prozesatuak, gailetak, gominola, patata frijituak... Fruta lehorrak jatea hobe: datilak, mahaspasak, pikuak, okaran lehorrak.... Kontuan izateko beste puntu bat hidratazioarena da. Elikagai gazi edo koipetsuak janez gero, egarria areagotuko zaizu eta kantinplorako ura asezin bihur daiteke. Aldiz, fruta eta barazkiek ura bere konposaketan daramatenez, lagungarri izango zaizkigu. Produktu lehor eta liofilizatuak pisu gutxiago izaten dute, baina gero egarri handiagoa ematen dute eta gerta daiteke mendian iturririk ez egotea.

Beste aukera bat bokatak dira. Horiek aukeratuz gero, kalitatezko ogian, eta, proteinaz gain, tomatea, ahuakatea, azenarioa, rabanitoak, piperrak, erremolaxa... sartu dakiegula gogoratu.

Gozatu eta zaindu gure mendiak, inguru paregabeak ditugu-eta bertan.

“Irteerak lau ordu baino gutxiagoko iraupena badu, ez da beharrezkoa ezer jatea”

Neguko hotzari aurre eginez

Aerotermitia

Hotza itzuli da. Eta indarrez egin du. Historiako negurik beroena biziko genuela uste genuenean, tenperaturek nabarmen egin dute behera, energiaren prezioak gora egiten jarraitzen duen bitartean. Eta, jakina, familia askoren galdera da, ea nola aurrez daitekeen etxeak klimatizatzen. Erantzuna honako hau izan daiteke: aerotermitia.

Zer da aerotermitia? Sistema horren bidez, airearen energia termikoa erabiltzen da aire girotua, beroketa edo ur beroa sortzeko. Nola? Bi sistemen arteko berotrukeari esker: gure etxea eta kanpoaldea.

Etxea hoztu nahi badugu, beroa kanpora bota behar dugu; etxea berotu nahi badugu, berriz, kanpotik beroa xurgatu eta aire hotza kanporatu behar dugu. Trukaketa horiek fase-aldaketan beroa askatuz edo xurgatuz egoera likido eta gaseosoetara pasatzeko gai den fluido baten bidez egiten dira.

Nola instalatzen da etxean? Prozesu horiek guztiak "bero-ponpa" izeneko sistema baten barruan egiten dira. Sistema horren bidez, fluidoak lan egiten duen norabidearen arabera, berotu edo hoztu egingo



Aerotermitari esker, berogailua, hozte-sistema eta ur beroa eduki daitezke etxeetan edo enpresetan, argiaren eta gasaren fakturak nabarmen murriztuz.

dugu. Horregatik, unitate bat izan behar dugu etxe barruan eta beste bat kanpoan, aire hotza edo beroa kanporatzeko.

Sistema ohikoenen artean, zoru erradiatzailea dago; tenperaturaren banaketa ezin hobea egiten du, hodiak zoruaren azpian baitaude instalatuta, eta gela klimatizatzeko aukera ematen du, ura pasatuz. Hala ere, instalazioa garestiagoa da eta obra gehiago behar du. Beste sistema bat tenperatura baxuko erradiadoreak dira: ohiko erradiadoreak bezalakoak dira, baina eraginkorragoak, tenperatura txikiagoan lan egiten baitute. Kasu horretan, instalazioa errazagoa, azkarragoa eta merkeagoa da.

TAILERRA:
J.A. Gisasola, 4 AC

CLIMALITekin isolatzaile onena lortuko duzu akristalimendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA:
Arikitzaneko Zubian

eta faxa: 943 20 39 03
info@crystaleriaacha.com

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 Tel./Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

IZARRAITZ LEIHOAK

PVC leihoak, aluminiozkoak eta mixtoak
Mantentze-lanak / Era guztietako konponketak
Pertsianak / Manparak / ...

Bidebarrieta, 48
Tel. 943 256 026 ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com

ARRIAGA SANEAMENDUAK

Saneamendua - Ur hotza eta beroa
Gasa - Kalefakzioa
Bainugelen erakusketa

943202034 - Arragueta, 2 bis A adm.arriagu@gmail.com

Etxe barruko temperatura

Etxeko hotzari aurre egiteko hainbat neurri daude, edozein berokuntza-mota izanda ere. Lehenengoa, termostatoaren temperatura eguneko unearen araberako doitzeta da.

Eguneko temperatura optimoa 19-21 °C artekoa da; gauez, berriz, 15-17 °C-ra jaistea gomendatzen da, edo, isolamendu ona izanez gero, berogailua itzaltzea. Beste aliatuetako bat termostatoa da, oso lagungarria baita berogailuaren kontsumoa kontrolatzeko.

Etxebizitzaren isolamendu termikoa indartzeko, kanpoko hormak estal daitezke: liburu-apalategiak, koadroak edo kortxoa erabilia. Pantaila isolatzaile bat ere jar dezakezu haien atzean, beroak ihes egin ez dezan erradiadoreak horma horietan jartzen badira.

Pertsianak eta gortinak ondo irekita eduki, eguneko orduetan hotzari aurre egiteko, eta gauez itxi, gelak isolatzeko. Horrela berotuko dira.

Konturatu gabe, beroak zirrikituetatik, leihoetatik eta ateetatik ihes egiten du. Nola egin aurre hotzari, orduan, leihoak eta ateak babestuz? Ateetarako zin-



ta itsaskorra edo burletak erabil ditzakezu. Lurrari dagokionez, alfonbrak aliatu onak dira hotzari aurre egiteko, oso energia-erokale txarrak direlako eta hesi termiko gisa funtzionatzen dutelako (batez ere terrazozko solairuetan).

Bulegoetako temperatura

Araudiak zehazten du langile batek zein temperatura maximo edo minimoetan bete ditzakeen bere eginkizunak barruko espazioetan. Ahalegin fisikorik egiten ez den bulegoetan, esaterako, temperatura 17 eta 27 gradu artekoa izan behar da. Lan arinak egiten diren lekuetan, berriz, 14 eta 25 gradu bitartekoa.

fonto.amana@gmail.com

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa, Kalefakzioa, Klimatizazioa, Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637

Jardines
Iturgintza

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net

Untzaga, 11 / 943 20 27 73
almecalefaccion@almecalefaccion.com

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

BAXI
De Dietrich

ame
almecalefaccion, S.L.

Calbeton, 23
943 12 07 91

Azpiri
EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Matsaria, 2
943 20 35 12

Inurrien besarkada bizitzari

Bularreko minbiziaren ikurra arrosa koloreko xingola izan arren, argi diote pink baino punk direla gehiago, minbizia, zerbait bada, marroia delako, "marroi handia". Minbizia diagnostikatu zieten Mari Seara Eizagirrerri (Deba, 1972) eta Jordina Arnau Roigi (Selva del Camp, La selva del camp, 1991), eta askotan sentitu dira itolarrian beraiak ere, baina halakoetan, burua altxatu eta bizitza besarkatzea erabaki dute, "hasierako desesperazioan ezin delako bizi". Horregatik batu dira Izan Inurrira, minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraltzaitetik lantzeko Lasarte-Orian sortu zuten elkartera. Izan inurriren izatea zabaldu nahi dute orain Debabarrenean ere, inurri tribuaren indarra ezinbesteko ikusten dutelako minbiziaren kontrako borrokan.

Ainara Argoitia (DKT)

Minbiziaren aurkako tratamendua jasotzen ari zen garaian ezagutu zuen Mari Searak Jordina Arnau, eta zer den bizitza: sendagiria jasota pozarren onkologikotik irten zen unean jakin zuen Jordinari bularreko minbizia diagnostikatu ziotela. 2019ko uztailaren 4a zen. Berarekin gelditu nahiko lukeela esanez hitzordu eske ari zitzaien laguna whatsapppe. Berririo minbizia, berririo eztarrian korapiloa. Gaixotu zenean berak falta izan zituen erreferente haien bila ari zen orain laguna. 28 urte bete berriak zituen Arnauk, eta lanpostua eta gainerako dena laga eta Kataluniatik Euskal Herrira bizitzera iritsi berria zen. Gaztea zen, familian ez zuen minbizia kasurik izan aurrez, eta horregatik seguraski, ginekologoak berak ere mamurikez ikusteko esan zion, bularrean gogortasun bat sentitu zuela esanez ikaratuta joan zitzaien estreinako aldian, baina iritsi zen "hostiakoa". "Denbora galduarazten ari nintzaiola ere sentiarazi zidan, baina insistitu nuen eta biopsiaren emaitzekin batera

iritsi zitzaidan gero danbatekoa. Kaka eginda nengoen, izugarriko beldurra nion sufritzeari. Nik aukeratu ez nuen mundu baterako VIP sarrera jaso nuen, errusiar mendiaren itxura duen eta bizitza osoa aldatzen digun mundurakoa, eta eskutik heldu eta bere prozesua bizipenetatik kontaktuko zidan norbait behar nuen, minbiziaren inguruan dena delako oso estereotipatua, denak dirudielako beltza, oso homogenea eta heriotzari oso lotua; beste diskurtso bat behar nuen", azaldu du Arnauk.

Minbizia inguratzen duten tabuak uxatuko zizkion norbait nahi zuen, kontaktuko ziona bazekiena, minbizia marroi handia dela, baina esango ziona, baita ere, sarri isiltzen dena: minbizia duen bitartean pertsona hori bizirik dagoela, eta beraz, bizitzan dezakegun dena dezakeela: bizi, negar, barre, maitatu, desiratu... "Minbiziak hil daiteke, bai, eta tratamendua oso gogorra da, baina zergatik mugatu behar gara gaixotasuna biktima paperean bizitzera? Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi; izango

zen izan behar zuena, baina bizirik nengoen eta bizi nahi nuen; eta hala egin nuen!", dio horren harira Searak. Pentsakera hori izateagatik minbiziak arinkeriaz hitz egitea leporatu dietenik ere izan dela aitortu du Arnauk, eta azpimarratu du: "Ez diogu garrantzirik kendu nahi ezerrri. Amorragarria eta gogorra da hau dena oso, eta errespetatzen ditugu, jakina, minbizia bizitzeko era guztiak, baina subjektu aktibo garena defendatzen dugu guk".

Diskurtso eta egiteko hori du Izan Inurri elkarteak sorreratik. Julene Illarramendi, Miren Cuerdo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten taldea, Illarramendiren ama (Eba Elexpuru) minbiziak hil eta bi urtera, eta Elexpuruk gorputzean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena. Sortzaileek aitortua dute pretentsio handirik gabe sortu zutela elkarte, minbizia dutenen alde zerbait egiteko, eta hala hasi zirela kamisetak eta zapi solidarioak josten eta saltzen, dirua bildu eta dohaintzan emateko. Orain, "eklosioan" dago elkarte. Iazko otsailean batu ziren talde era-



Izan Inurri elkarteko Mari Seara Eizagirre eta Jordina Arnau Roig. Harremanetarako: izaninurri.com. AINARA ARGOITIA

gilera Jordina Arnau eta Olatz Mercader, eta geroztik, antolatu dituzte bertso-saio solidarioak, biluztu dira eta sortu dute egutegi, sortu dituzte podcastak Spotifyn [(MIN)Bizi euskaraz eta Dragón Cancer gaztelaniaz], antolatu dituzte formazio saioak eta arteterapia saioa, tematu dira dibulgazioan eta ikerketan, eta ehundu dute minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenen sare bat, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. Sortu dute "espazio libre, seguru eta konfiantzazkoa" minbizia normalizatzeko eta taburik gabe hitz egiteko. Eta egin eta egiten dute hori dena, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, osasuna ere, gizonezkoen ikuspegitik aztertzen delako gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak ere jaso dituztelako sarri.

Patriarkatuaren itzala

"Emakumeok programatuak izan gara gure gorputzak besteek ikusten eta sentitzen dituzten bezala ikusteko, guk nola sentitzen ditugun eta nola erabili nahi ditugun ikus-

teko baino gehiago", hasi du haria Searak. "Dena dago prestatuta amaizateko dugun eskubidea bermatzeko. Esterilizazioa eragiten du tratamenduak, baina hasieratik esaten dizute obuluak gordetzeko aukera dagoela. Desira sexualik izango dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik kanpo gelditzen da. Ez dute halako galderarik espero gugandik eta ez da horren inguruan azalpenik ematen", gehitu du ondotik Arnauk. Gaur gaurkoz, bularrekoa da minbizirik zabalduena emakumezkoetan eta prostatakoa gizonezkoetan, baina nabarmendu dute gizonezkoen sexu beharrak asetzeko ikertu beharreko dena ikertu den arren,

Minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraldatzailetik lantzen ditu Izan Inurrik

oraindik ez dela ikertu bularreko minbiziak zer eragin duen emakumeen sexualitatean. "Gurea garrantzirik gabeko kastrazio kimikoa da, gure gorputzak erreproduktzioarako eta besteen desirak asetzeko daukelako uste baita", esan du Arnauk. Eta horregatik uste dute, adibidez, falta dituztela bular bakarreko pertsonen erreferentziak eta bihurtzen dela ilea erortzea benetako arazo askorentzat.

Bularra galtzea

Erabili zuen ile-ordea Searak ere eta protesia jartzeko ebakuntza ere egin zioten bularra kendu ondoren. "Askotan, ematen du bularra berregitea zikloa ixteko ezinbesteko pausoa dela, baina ez da. Nik ere egin nuen saioa, baina ez nengoen gustura nire gorputzarekin, eta gorputzak berak ere ez zidan onartu protesia». Garbi dio emakumeoi inposatzen zaizkigun estereotipo estetikoek eragiten dutela halako erabakietan. "Bularra galtzea ez da beste gorputz atal bat galtzea bezalakoa, eta horri buruz hitz egin beharra dugu", zehaztu du. Estatu espainiarrean, urtero



16.000 mastektomia egiten dira, eta horietatik 4.800 kasutan ebakuntza egiten da bularra berregiteko. Nolanahi ere, badaude berreraiki ezin diren bularrak, bai eta aukera horri uko egiten dioten emakumeak ere. Beraz, urtean 11.200 bat titibakar gehiago dira, baina hala ere, "gorputz horiek biluzik erakustea iraultza egitea dela uste da oraindik eta batzuetan nahi ez lituzketen esaldiei erantzun behar izaten diogu gure lagunek, 'egin ezazu senarragatik' eta halakoei".

Inurrin argi dute minbizia ez dutela beraiek aukeratu, baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela. "Kasu bakoitza kasu bat da, eta denak entzuteko eta ahal dugunean laguntzeko gaude gu, ez baitugu ahaztu behar gaixo egotea garestia dela", nabarmendu du Arnauk. Osasungintza publikoan jarri dute begia. Onkologikoan artatu zituzten biak, eta ez dute jasotako tratuaz kexarik. Oso profesional onak topatu zituzten han, eta "arreta gertukoa eta konfiantzazkoa" jaso zuten uneoro, baina tratamendu onkologikoaz gain, kimioterapia, radioterapia eta kirurgiaz gain alegia, beste tratamendu edo profesional batzuen laguntza ere behar izan dituzte -psikologoak, nutrizionis-

tak...- eta hori dena arlo pribatuan bilatu behar izan dute. "Gaixotu nintzean langabezia-saria jasotzen ari nintzen, baina hilean 300 euroekin gelditu nintzen. Ez neukan laguntzarik jasotzeko eskubiderik ere, ez neramatzalako hemen hiru urte erroldatuta. Hala ere, beste asko baino hobeto nengoen, inguruan dudan sareak mantendu ninduelako ekonomikoki eta bestela. Minbiziak bizitzako arlo guztietan eragiten du eta laguntza terapeutiko handia behar izaten dugu urte askoan zehar, hau ez baita urtebeteko kontua askotan entzun behar izan dugun bezala", dio Arnauk. Patriarkatuaren itzalaz eta gaixotzean biderkatzen diren desberdintasun sozialez ari dira solasaldian, gaixo guztiek ez baitute gaixoaldia modu berean eramateko ahalik. Osasungintza publikoaren "eskastea" ere aipatu dute: "Gure inurri lagunek

nabarmen igarri dute, bereziki pandemiatik hona".

Bidelagun izatea nahikoa da

Horretarako osatu dute inurritegia. Emakumeak dira gaur gaurkoz Izan inurriren bueltan dabiltzanak eta ematen die horrek zer pentsatua, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duenarentzat, "edo zeinek duelako zer ekarria proiektura". Tribuaren indarra ezinbestekoa dutela diote, eta azpimarratu dute ez direla gerrari, askotan aurkeztu izan badituzte ere han-hemen. Bizitza tokatu zaiena onartu eta ahal duten eran bere egin dutela diote, eta oso barneratuta dute Izan inurrik azpimarratzen duena: "Hobe besarkada eman bizitzari, energia borroka hutsaletan erabiltzeak ez duelako zentzurik". Ulertzen dute, hala ere, aldamenekoen eta inguruko asmatu ezina. "Minbizia izan dudan arren, neuri ere gertatu zait beste bati zer esan ez jakitea", aitortu du Arnauk, baina badute gomendio bat, Maider Estensoro inurrikidea- ren ahotan entzun daitekeena beren Facebookean. "Ez bota begirada errukitsurik. Ez badakizue zer esan, ez esan ezer. Eman besarkada bat edo laztan bat. Bidelagun izatea nahikoa da; egote hutsa".

Bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela argi dute Izan Inurrin



Barru zein kanpo, naturak jango gaitu bapo. FERNANDOSOLANA

“Ateak zabalik daude taldera etorri nahi duenarentzat, mundiala jokatu dezakete”

JESSICA OTS eta ROUSSE GARCIA • Arima Galduak jugger taldea



Eibar Juggerreko Kluben Munduko Txapelketako egoitza izango da uztailaren 21etik 23ra. Herriak inoiz hartu duen lehen munduko txapelketa izango da eta, antolatzaileen kalkuluen arabera, munduko toki ezberdinetatik etorritako 500 lagun inguru bilduko dira Eibarren.

Arima Galduak herriko jugger taldearen ekimenez antolatuko da Munduko Txapelketa eta Eibarko Udalak prestutasuna aurkeztu du prestakuntza lanetan laguntzeko. Lan asko dute aurretik, baina Jessica Ots eta Rousse Garcia ilusioz beterik daude erronkaren aurrean. Arima Galduakeko kideek Munduko Txapelketaren eta juggeraren inguruko xehetasun gehiago eman dizkigute Txaltxa Zelain, euren entrenamenduetarako gunea izan den tokian.

Nolako erronka da zuentzat Munduko Txapelketa antolatzea?

Erronka handia da eta dagoeneko hasi gara antolatzen, gauza asko egin behar dira-eta. Sei hilabete falta dira Munduko Txapelketaraino, baina segituan pasatuko dira.

Nola sortu zen Munduko Txapelketa Eibarren antolatzeko aukera?

2021ean Berlingo Munduko Txapelketa jokatu genuen eta Murtziako eta Madrilgo jokalariek osatutako talde batek irabazi zuen. Mundialean egon ginenok Telegramen bitartez harremanetan gaude eta, erdi txantxetan, esan zuten aurreko txapelketa Espainiako talde batek

irabazi bazuen, hurrengoa Espainian jokatu behar zela. Alemaniarrek baietz esan zuten, besteei bide emateko gogoz zeudelako, Berlingoa antolatzea demasekoa izan baitzen. Orduan, pentsatu genuen Euskal Herrian juggerak bultzada behar duela. Twitterren ikusi nuen Eibarko Udalak herrian turismoa bultzatu nahi zuela, eta alkatearekin harremanetan jarri ginen. Munduko Txapelketa antolatzeko aukera aurkeztu genion eta oso ondo iruditu zitzaion.

Berlingo jendeak esan bezala, demaseko antolaketa eskatuko du mundialak, ezta?

Iazko otsailetik gabilta instalakuntzak bakarrik lortu nahian. Beraz, pentsa! Gainera, Kirol Patronatuan aldatetak egon direnez, gauzak atzeratu egin ziren, baina alkatearekin eta Ander Curiel kirol zinegotziarekin harremanetan gaude gauzak egiteko.

Zenbat talde eta jokolari pentsatzen duzue etorriko direla lehiatzera?

Hasieratik hainbat talde prest agertu dira etortzeko. Iaz inkesta egin genuen eta Espainiatik kanpoko 25 taldek esan zuten etortzeko prest zeudela. Eta beste alde batetik, Espainiako 20 taldek esan ziguten etorriko zirela, baina azken txapelketetan 54 talde ibili izan dira eta estatuan ehun taldetik gora daude. Be-



Elkarrizketaren bideoa



“Juggerreko partiduetan lehia dago, baina baita barreak, txantxak eta besarkadak ere”

raz, horietatik asko etortzea espero dugu. Orduan, Munduko Txapelketan guztira 72 talde inguru aritza aurreikusten dugu. Kontuan izanda talde bakoitzetik 7-10 jokalaririk etorriko direla, 500-700 lagun etorriko dira asteburu horretan Eibarrera. Gainera, seguruenik jokalaria lagunekin edo familiarekin etorriko dira; beraz, kopurua handiagoa izan daiteke.

Azkenean, Munduko Txapelketa jokatu da, baina jiggerraren inguruko ekintzak ere egingo dira eta turismoa egiteko aprobeztatu daitezke, ezta?

Bai, ekintzak egunean hasiko dira, uztailaren 20an (taldeak jasoko ditugu, izen-ematea egingo da...). Pentsatzen dugu atzerrikik datozen taldeak astebeterako geldituko direla hemen inguruan, batzuek oso bidaia luzea egin behar dutelako.

Nola egituratuko da txapelketa?

Lehenik eta behin zozketa egingo dugu taldeak multzoetan banatzeko, eta multzo bakoitzeko taldeen artean txapelketa txikia egingo da. Gero, hor sailkapen bat sortuko da eta batzuk aurrera egingo dute, kanporaketetara sailkatuz. Horrela, domekan (uztailaren 23an) jokatu den finalera iritsi arte.

Egunean zenbat neurketa jokatu dira?

Talde bakoitzak zazpi neurketa inguru jokatu ditu.

Unbeko zelai bakoitzean juggerreko bost joko-eremu sartzen dira. Beraz, bost partidurik jokatu ahal izango dira aldi berean. Denbora baldin badugu, bazkaltzeko geldialdia egingo dugu; baina, bestela, partiduren bat jokatzeko falta bada, etenik gabe jokatu dugu.

Arima Galduak talde antolatzailea da, baina jokatzeko aukera izango duzue?

Gehien bat antolaketan ibiliko gara buru-belarri. Txapelketan jokatu ahal izateko jende gehiago behar izango dugu, bestela ezingo dugu dena egin; baina, lortzen badugu, jokatu dugu. Ateak zabalik ditugu taldera etorri nahi duenarentzat eta Munduko Txapelketa jokatzeko aukera izango dute.

Gaur egun zenbat lagun zabilzate Arima Galduaken?

Zazpi lagun inguru gabilta taldean batipat. Azken asteotan, adibidez, hiru lagun gehiago sartu dira kirola probatzeko asmoz. Ea gelditzen diren eta taldea handitzen goazen.

Nongo jendea dago taldean?

Arrasate, Bergara eta Zumarragako jendea dago, adibidez. Lehen Elgoibarko jendea ere bazegoen, baina laga egin zuten.

Zenbat aldiz entrenatzen duzue? Zein txapelketatan lehiatzen zarete?



Taktikek eta estrategiek berebiziko garrantzia dute juggerrean. ARIMAGALDUAK

Entrenamenduak domeketan egiten ditugu, Bergaran. Aldagelak eta gauzak lagatzeko tokia ematen dizkigute eta, tira, horrekin moldatzen gara. Gainera, taldekideak nongoak garen ikusita, guztiontzat da erraza bertara heltzea. Lehen Txaltxa Zelaian entrenatzen genuen, jende artean eta, euria bazegoen, kioskoan, baina horia ez dago lekurik. Bestetik, normalean hilean behin jokatzen dugu txapelketaren bat penintsulako iparraldean. Hiru-lau orduko bidaiak egiten ditugu jokatzeke. Datorren hilean Neguko Kopa jokatuko dugu Murtzian, baina hori izango da egingo dugun bidaiarik luzeena. Txapelketa horretan Arima Galduakeko hiru kide ibiliko gara, eta Bilboko beste lagun bat eta beste toki batzuetako jokalariek batuko zaizkigu taldera. Taldea betetzeko gutxieneko jokalariek ez baditugu, beste talde batzuei jokalariek eskatu eta taldea osatzen dugu. Beti dago talde batean finko ez dagoen jendea. **Lagun giroa da nagusi, beraz? Edo badago lehia suitsua?** Partiduetan lehia dago, baina baita barreak, txantxak eta besarkadak ere. Gero, kamisetak trukutzen ditugu eta elkarrekin bazkaltzen dugu. Kirol-legez jokatzen dugu.

“Taldea betetzeko gutxieneko jokalariek ez baditugu, beste talde batzuei jokalariek eskatu eta taldea osatzen dugu”

Aurreko asteburuan Santanderren lehiatu zenuten. Zer moduz egon zen txapelketa?

Internukleo Zirkuitua jokatzen ari gara. Lehen Zaragozan jokatzen zen, baina orain Santander eta Zaragoza artean banatzen da eta gu Santanderrera joan ginen. Konferentzia bakoitzean zazpi talde egon gara eta finala Madrilen jokatuko da maiatzean. Maila handiko taldeak egon ziren Santanderren, hiri handietan talde gehiago daudelako. Guk, adibidez, beste talde batekin entrenatu nahi badugu, Bilbora joan behar gara. Gutxienez ez ginen txapelketako azkenak izan (barreak).

Aratosteetako play-back lehiaketa kalera itzuliko da

Pandemiaren ondorioz azkeneko urteetan online egin behar izan eta gero, kalera itzuliko da berriro ...eta kitto!-k antolatzen duen aratosteetako Play Back lehiaketa. Otsailaren 19an izango da, domeka, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Errebal plazan. Betiko moduan LH 5. eta 6. mailetako ikasleek hartu ahal izango dute parte, eta, horretarako, izena eman beharko da otsailaren 10a baino lehen. Parte-hartzeko baldintzak honako hauek dira: taldeak, asko jota, sei lagunez osatuko dira; parte-hartzaileak mozzorrotuta joan beharko dute; talde bakoitzak ikuskizun bakarrarekin hartuko du parte; aurkeztutako abestiak euskaraz izango dira; abestia MP3 formatoan grabatuko da eta emailaz bidaliko izen-emate fitxarekin batera (eskoletan dituzte) honako helbide honetara: normalizazioa@etakitto.eus. Sariei dagokienez, ez dira nolanhikoak izango.



Hiru izango dira guztira: interpretazio onenarena, koreografia onenarena eta mozzorro onenarena. Hala ere, parte-hartzaile guztiek jasoko dute oparixoa. Lehiaketa egunean parte-hartzaileek 16:30erako egon beharko dute Errebal Plazan eta bertan emango zaie parte-hartzearen txanda edo ordena. Ainara izango da arduraduna, berarengatik galdetu. Informazio gehiagorako aurrez aipatutako helbidera idatzi.



Barixakuak Jolasian Urkizun izango da gaur

Urkizuko parkeak hartuko ditu gaur arratsaldean Barixakuak Jolasian ekimeneko urtarrileko azkeneko jolasak. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat jolasak antolatuko dira, doan, eta, euria egingo balu, Leonardo Azpirineko aterpetxoan egingo lirakeke. Horrekin amaituko dira urtarrileko jolasak, baina otsailean izango da gehiago: otsailaren 3an Txaltxa Zelain egingo dira, 10ean Torrekuako parkean eta, aratosteak atzean lagata, otsailaren 24an Urkizura bueltatuko dira jolasak.

Kalean da urtarrileko Txikitto! aldizkaria

Aste honetan jaso dute Eibarko LH-ko ikasle guztiek Txikitto! hila-betekaria. Urtarrileko aleak hainbat protagonista ditu. Batetik, Mikel eta Unax Larrañaga aitxitxa-bilobak elkartu ditugu, eta elkarrizketa berezia eta interesgarria egin dio bilobak aitxixari: ume-denborako sasoia, gerraosteko Eibar, euskararen egoera lehengo eta oraingo



Eibarren, Euskaraz eta kitto! bandoa...Eta, bestetik, La Salle ikastetxeako ikasleek itsasontzien, Elkanoren bidaiaren eta astronomiaren inguruan ikasi eta landu dutenaren berri eman digute urteko lehenengo alean, ikasleek eurek egindako txiste, ipuin eta denborapasak ahaztu barik.

II. Eibarko Gomazko Paleta Txapelketan izen-ematea zabalik otsailaren 5era arte

Iaz abiatu zuten Gomazko Paleta Txapelketak bigarren edizioa biziko du oraingoan. Otsailaren 12an jokatuko dute lehenengoko jardunaldia eta gaurtik otsailaren 5era arte eman daiteke izena bertan parte hartzeko: “Horretarako aukera izango dute eibartar guztiek, mutilen, nesken edo bikote mistoetan, nahi duten modalitatean jokatzeko”. Izena emateko 30 euro ordaindu beharko dute bikoteko eta kontaktua whatsapppe egin dezakete 666190470 zenbakiaren bidez. Aurreko asteburuan, bestalde, paleta gomazko binakako Udaberri txapelketaren barruan, Eibarko Klub Deportiboko bikoteak 19-25 galdu zuen Mutrikuko ordezkarrien aurrean. Asteburu honetan Deporreko ordezkariek Zarauzko

Aritzatalde pilotalekuan dute hitzordua, txapelketaren hirugarren jardunaldiaren barruan.

Gaur jaialdia Astelenan

Pilota arloan asteburu bikaina izan zen Deporreko ordezkarientzat, lau garaipen eta porrot bakarrarekin; azken horretan, gainera, Narvaiza-Agirresarobe senior mailako bikoteak maila handiko neurketa eskaini zuen Errenterrikoen aurka, azkenean 19-22 amore emateko. Senior mailako Azkargorta-Conde bikoteak 22-10 irabazi zion Tolosakoari, Basaras-Urkiaga kadete mailakoak 22-21 Villabonakoari, eta infantil mailako Del Rey-Gil (18-9) eta Amillategi-Varona (18-2) bikoteek Oñatiko eta Oriokoari, hurrenez hurren.



Gaur, bestalde, 19:00etan hasiko den jaialdian, infantil mailako eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Aratz Amillategi eta Xuban Varona eibartarrek Zestoako Izagirre-Mayori egingo diote aurre eta, jarraian, oraingoan Udaberri Txapelketaren barruan, Ekhi Azpilikueta eta Manex Gissola kadeteek Oiartzungo Etxeberria-Zelaiaran bikotea izango dute aurrez aurre.

Eibar FT-ko PC taldea goleatzaile nagusi

Burmuin Paralisisa duten jokalariekin osatutako Eibar FT-ren ordezkariek garaipen bikainak eskuratu ditu futbol inklusiboaren arloan jokatzen den esparru horretako denboraldiko lehen jardunaldian. Castelldefels-en abiatutako Liga Nazionaleko norgehiagoka horietan eibartarrek 6-0 irabazi zioten Levanteri eta 12-0 Extremadurari. Bosgarren denboraldia da Eibar FT-k futbol inklusiboa sortu zuela bere barnean eta bi talde dituen bakarra da EAEn: bat Genuine Ligan eta bestea PC-n (Burmuin Paralisisa). Ander Romarate da proiektuaren burua eta Andoni Igartua eta Ioritz Begoña dira lehen eta bigarren entrenatzaileak.



Urbat waterpolo taldeak Kopako finalerako txartela eskuratu dezake gaur Orbean

Aurreko asteburuan Kopako final-zortzirenetan Sestaori 6-13 irabazi eta gero, Urbat Urkotronik-eko talde nagusiak Nafarroa B izango du aurkari Kopako finalerako txartela eskuratu dezake gaur Orbean

hitzordua Orbeako igerilekuan eta, irabaztekoan, Iruñean jokatuko diren finalerako txartela eskuratu luke. Sestaon eibartarrak oso nagusi izan ziren, partiduen pisua eramanez hasieratik amaierara arte.

Jorge Iturricastillo Ugalde

Arratera goiaz.
Zu etzatoz.
Baina zure bizipoza
eta alaitasuna gurekin
datoz aldapan gora.



BETIRARTE, LAGUN
- ZURE MENDIKO KUADRILLA -



Olga Alcerreca Mendoza

2023/01/19

“Bapatian
juan zara,
baiña betirako
egongo zara
gure bihotzetan”

- ZURE SEME-ALABAK,
AHIZPA ETA ILOBAK -



Virginia Herrera Cañas

1. URTEURRENA
2022/01/25

“Utzi gintuzula urtea
bete bada ere, gero eta
presenteago zaitugu.
Zure bizitasuna, indarra
eta oroimen guztiak
gurekin jarraitzen dute”

MAITE ZAITUGU, VIR
- ETXEKOAK -



Jorge Iturricastillo Ugalde

2023/01/21

Agur eta ohore
Ahoa betean
Omenaldi txiki bat
Guztion artean
Azken aste hauetan
Gurpildun aulkian
Bizitzak lotu zaitu
Gogorki katean
Gaur askatuko zara
Zeure lur maitean

- ETXEKOAK -

Bihotz bihotzez, gure ESKERRIK BEROENAK une zail honetan gutaz gogoratu
eta lagundia diguzuenoi. Besarkada haundi bana. Ina, Aitor eta Nerea



M^a Angeles Arrizabalaga Bilbao

4. URTEURRENA
2019/01/29

“Zure hutsunea
ezin da bete.
Gure oroimenean
zaitugu,
amatxo laztana!”

- ETXEKOAK -



Luis Maria Gisasola Iturricastillo

4. URTEURRENA
2019/01/23

“Urteak aurrera
egin arren,
gure artean
jarraitzen duzu”

- ZURE FAMILIA -





Aratosteetan egingo den lehiaketarako izen-ematea eguaztenean hasiko da

Udalak herritarrak animatu nahi ditu otsailaren 18an, Aratoste zapatuan, eguerdian egingo den kalejiran parte hartzeko eta, horrela, herriko kaleak girotzen eta alaitzen laguntzeko. Kalejirako lehiaketan parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago eta datorren astetik aurrera izango da horretarako aukera, zehazki otsailaren 1etik 17ra bitartean, Udalaren webgunearen bidez. Guztira, 1.000 euro banatuko dira sarietan. Helduen kuadrila handien kategorian hiru sari egongo dira (400, 200 eta 100 eurokoak); helduen kuadrila txikien mailan, berriz, bi sari (200 eta 100 euro); eta haurren kategorian ere beste bi sari banatuko dituzte: lehen postuan gelditzen direnek afari-merienda eta antzerkirako sarrerak irabaziko dituzte; eta, bigarren lekuan gelditzen direnek, afari-merienda izango dute opari moduan.

Itzalen antzerkia egingo dute Zapatuko Ipuinaren saioan

Patata Tropikala Antzerki Laborategia proposamen berriarekin etorriko da bihar Eibarrrera, udal liburutegiak antolatzen duen “Zapatuko ipuina” ekimenaren baitan “Enperadorearen kondaira: itzalen antzerkia” izeneko lana eskaintzera. Aintzinako Txinan girotutako ipuina kontatuko dute eta, horretarako, narrazioa eta itzal-antzerkia tartekatuko dituzte. Saioa Portaleko areto nagusian izango da, 18:00etan, eta beharrezkoa da aurretik izena ematea.



Ustekabe txarangakoak Donostiako danborradan...

Ustekabe txarangakoak pozarren daude, asteburuan Donostiako danborradan parte hartzen egon eta gero. Fanfarreak hamar urte baino gehiago daramatza Donostian jotzen, baina aurten ahalegin berezia egin du, hiru konpainiarekin batera aritu baita: Antonio tabernaren, Irrintziren eta aurten lehen aldiz irten den Itxasperen kalejiretan hartu zuten parte eibartarrek.



...eta danborradaren doinuak Coliseo antzokian

Usartza Txistulari Taldeak danborradaren kontzertua egin zuen domekan Coliseon, Enrique Monterok zuzenduta. Metalen eta Eibarko danborradaren laguntzarekin, primerako giroa sortu zen antzokian.



“El cuidador” antzezlan aurkeztuko dute gaur

Pentación Espectáculos antzerki konpainiak Harold Pinterren “El cuidador” lana eskainiko du gaur Coliseo antzokian, 19:00etan. Joaquín Climent, Alex Barahona eta Juan Díaz aktoreek egiten dute lan, Antonio Simón zuzendari dutela: “Hiru antzezleak giza pertsonaien triangelu baten erpin bihurtzen dira, krisiak astinduak, bizirik irauten dutenak, bananduak: bi gizon gazte eta zahar bat duela dialektiko, dramatiko eta komiko batean aldi berean”. Sarrerak 15 euro balio du (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Bruce Springsteen-en musikaz gozatzeko kontzertua

Rockaren klasikoak interpretatzen luze aritu ondoren, Bizkaiko El Pacto Rock Band taldeak bere erreferentzia handienetako bat den Bruce Springsteen artistaren omenezko ikuskizunarekin etorriko zaigu bihar Coliseo antzokira. Mario Marodán (ahotsa), Juan Carlos Gómez (bateria), Javier Alzola (saxoa eta perkusioa), Ramón “Montxu” Escobar (gitarra), Gontzal Alonso (baxua) eta Alberto Egia (teklatuak) osatzen dute taldea. Kontzertua 19:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Plazara Dantzara egingo da Errebalen gaur 19:00etan

Klub Deportiboko Kezka dantza taldeak eta Kultura Sailak iaz abiatutako Plazara Dantzara egitasmoaren baitan, gaur 19:00etan dantzaldia egingo da Errebal Plazan, Nafarroa Beheretik datorren Lolita Delmonteil musikariarekin. Dantzan egitera animatzen direnek eskusoinua, ahotsa eta ttun-ttuna izango dituzte lagun. Bestalde, domekan 19:00etan, dantza-tailer irekia egingo da Elgetako Espalioa kafe-antzokian, Herrixa Dantzan-en eskutik. Sarrera doan da eta parte-hartzea libre. Urtarrila eta otsaileko saioetan ‘Euskal Herriko plazetarako dantza berriak’ proiektuko dantzak eza-gutu eta lantzeko tailer irekiak egin dituzte.

Miguel Onaindia puntistaren pelikulak digitalizatuko dituzte

Miguel Onaindia Laucirica puntista eibartarrak lagatako pelikulak digitalizatuko ditu Eibarko Udal Artxiboak, Euskadiko Filmategiarekin elkarlanean. Onaindiak Ameriketara egin zuen bere kirol ibilbide gehiena eta Tijuana (Mexiko) motela ireki zuen, bertan Hollywoodeko izar handiak ezagutzeko aukera izan zuelarik.


Santa Agedarako entsegu irekia



Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Santa Ageda bezperarako antolatutako ekitaldian parte hartzera, beraiekin batera kantuan aritzera. Horretarako prestatzeko, martitzenean entsegu irekia egingo da Musika Eskolan bertan, 20:00etan hasita. Otsailaren 4an, berriz, 19:30ean irtengo dira koplak kalerik kale abesteko.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			3			
	1	6		7		2
7			2	4		8
9				3	2	
4	6					1
		3	2			6
	8		9	5		4
6			4		5	9
			6			



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			5	3	1		9	
	1		2			5		
5					4			1
			1					9
1	9					7		3
8				6				
3			9					6
		2			3		4	
	4		8	2	5			

**S
U
D
O
K
U**



AURKITU 8 EZBERDINTASUNAK

BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO BI ARIKETA

Gizon bat argazki bati begira dago. Lagun batek argazkikoa zein den galdetzen dionean honakoa dio: "Ez dut anai-arrebarik, baina horren aita nire aitaren semea da. Zein da argazkikoa?"

Abeltzain batek 10 untxi, 20 zaldi eta 40 txerri ditu. Txerriei zaldi deitzen badie, zenbat zaldi izango ditu?

20 zaldia izango du.
Txerriak zaldi baten baliokide dira.

Bere semea.

Urtarrilak 27/Otsailak 2

BARIXAKUA 27

URTEKO BATZARRA

16:30 Bazkideen urteko batzarra. Untzaga jubilatutxetxe..

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Urkizuko parkean..

ANTZERKIA

19:00 "El cuidador" (Pentación). 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo..



DANTZA

19:00 "Plazara dantzara" dantzaldi gidatua, zuzeneko musikarekin: Lolita Delmonteil (Okzitania - Nafarroa Beherea). Errebal Plaza.



ZAPATUA 28

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

TAILERRA

11:00/13:00 San Blas opilak egiten ikasteko, Edurne Zenarruzabeitiarekin. Doan, bazkideentzat, 5 euro bazkide ez direnentzat. Arrate Kultur Elkarte.



ZAPATUKO IPUINA

17:00 "Enperadorearen kondaira" itzalzen antzerkia (Patata Tropikala). Portalea (areto nagusia).



MUSIKA

19:00 "Una mirada al Boss", El Pacto Rock Band taldearekin. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



MARTITZENA 31

SANTA AGEDA

20:00 Entsegu irekia, Santa Ageda bezperako ekitaldirako. Musika Eskola.



ERAKUSKETAK

Otsailaren 19ra arte:

- "ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBAREN II" Manuel Zabalaren maketak. (Armagintzaren Museoa).
- "BEARDAN BEZELA (GEHIENETAN)" La Taller grabatu-eskola (Portalea).

Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN. (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

27an (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

19:00 / Herriko Antzokia "Trash" (Yllana)



29an (DOMEKA)

KONTZERTUA

12:30 / Aita Agirre Kulturgunea "Belar Hostoak"

DEBA

27an (BARIXAKUA)

KONTZERTUA

2000 / Kultur Elkarte Mikel Urdangarin



ERMUA

27an (BARIXAKUA)

KONTZERTUA

20:00 / Ermua Antzokia Ismael Serrano



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 28an: 16:30
- 29an: 20:00
- 30ean: 20:30

“El falsificador de pasaportes”
DRAMA



2022/Alemania/116'
Zuzendaria: Maggie Peren
Aktoreak: Louis Hofmann,
Jonathan Berkin, Luna Vedler
Biografikoa/Nazismoa

2 ARETOA

- 28an: 19:45, 22:30
- 29an: 17:00, 20:00
- 30ean: 20:30

“Al descubierto”
DRAMA



2022/AEB/129'
Zuzendaria: Maria Schraeder
Aktoreak: Zoe Kazan, Patricia
Clarkson, Carey Mulligan
Kazetaritza/Sexu abusuak

ANTZOKIA

- 28an: 19:00 (1 Aret.), 22:30 (1)
- 29an: 16:30 (1 Aret.), 20:00
- 30ean: 20:30

“Babylon”
KOMEDIA



2022/AEB/185'
Zuzendaria: Damien Chazelle
Aktoreak: Margot Robbie,
Brad Pitt, Diego Calva
Zinea zine barnean

2 ARETOA

- 28an: 17:00
- 29an: 17:00 (Antzokia)

“El asombroso Mauricio”
ANIMAZIOA



2022/Erresuma Batua/93'
Zuzendaria: Toby Henkel
**Fantastikoa/Komedia/
Abenturak/Katuak**

PUBLI RESA
abierta publicitaria

merchandising
serigrafía
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Amagin, 3-5 behea

Iradi
LORADENDA

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29
Enkarguak etxera

HO E E EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA

A2 B1
B2 C1

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren Tetik 8ra (13.00ak arte)

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.hezkuntza.net

**ENGLISH
EUSKARA
DEUTSCH
FRANÇAIS**

eoieibarheo@gmail.com
943 899275

EUSKO MENDIALDEA
GOBIERNO VASCO

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Ozaola, 27
Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko Ilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ADRIAN**. Hillaren 21ian 4 urte bete zenduazten-eta. Jarraitu halakua izaten. Familixa guztiaren partez.



Zorionak, **ELENE**, atzo 6 urte egin zenduazten-eta. Aitite, amama eta, batez be, Zumaren partez.



Zorionak, **JARE!!** Atzo 4 urte bete zenduazten-eta. Musu haundi bat aitta eta amaren partez. Asko maite zaittugu!!



Zorionak, **UXUE**, printzesa, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta! Infinito maite zaittugu! Musu pillua famelixaren eta, batez be, Ibaixoren partez.



Zorionak, **ALBA**, astelehenian 14 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa! Musu bat famelixax guztiaren eta, batez be, Manexen partez.



ARATZ gure etxeko txiki-erraldoiak eguaztenian 3 urte bete zittuan. Jarraitu horren alai bizitzari dantza egitten. Zorionak!



Zorionak, **EKHI!**, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixax guztiaren partez. Happy Birthday!



Zorionak, **POL**, maittia, eguaztenian 4 urte potolo bete zenduazten-eta!! Segi gure egunak alaitzen. Pillo bat maite zaittugu.



Zorionak, **MAREN**, hillaren 15ian 11 urte bete zenduazten-eta. Musu haundi bat famelixax guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL** eta **ANDER**, atzo 6 urte egin zenduazten-eta. Familixa guztiaren partez.

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lanpostuak betetzeko deialdia egin du:

Doimak

LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUTEN MUNTATZAILEAK BEHAR DIRA.
(INGELESEZKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen curriculumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora edo 943 740 988 (Claudio) telefonora deitu

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

• Pisua salgai Urkin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Bista zabaleko 2 balkoi. Igoailua 0 kotatik. Garaje itxia aukeran eraikin berean. 690031734.

1.2. Errentan

• Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Eibar inguruan. 688642761.
• Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.

• Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igoailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

4. LANA

4.1. Lan bila

• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632844780.
• Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632415374.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602842219.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioa eginda. 631425686.
• Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta LH klase partikularrak emateko. 688628235.
• Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 632611432.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioarekin. Esperientzia handia. 643398596.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 631612442.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. 605402030.
• Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. 657794652.
• Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eramane eta etxeko garbiketarako egiteko. Baita arratsaldeko komertzio edo harreraren baten lan egiteko. 635706717.

• Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusien zainketa. 600836168.
• Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. 617383494.
• Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. 617571210.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 613819233.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hotelean lan egiteko. 624660035.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioarekin). Autoarekin. 612223075.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632642320.
• Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602012075.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. 641739472.
• Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. 612294738.

4.2. Langile bila

• Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsalde, martitzenetik zapatara. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com
• Behargina behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.

• Ilepaindegi batean esteticien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).
• Gizon nagusia zaintzeko pertsona behar dugu, etxean biziko dena. Zertifikatua egotea derrigorrezkoa da. 620888320.
• Euskaraz dakien neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

• Mekanizazio Erdi mailako Heziketa Zikloa egiten diharduen ikasleak irakasle partikularra behar du. 656702244. Rosi.

5.2. Eskaintzak

• Gitarra klase partikularrak ematen dizkiet etxean bertan 5-12 urte bitarteko haurrei. 688695814.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

• Patinete elektrikoak, kaskoa eta euritako sira salgai. Estrenatzeko. 695752700.
• LED lanpara, bonbilla eta aplikak saltzen ditut, denda itxi dudalako. 612223075.

La  Salle
Eibar

Elkarrekin egingo dugu bidea

Haur Hezkuntza,
Lehen Hezkuntza
eta DBH

Matrikula epea:
Otsailaren 13tik 24ra

Informazio eta zuzendutako bisitak

lasalleeibar.eus

943 202 133 | 943 121 698



Zatoz!



BARIXAKUAK JOLASIAN

JOLASAK 2-8 urte bitarteko haurrentzat

GAUR

Urkizuko parkean

OTSAILAK 3

*Txaltxa Zelaiko
harmailetan*

OTSAILAK 10

Torrekuako parkean

OTSAILAK 24

Urkizuko parkean



17:00etatik **18:00**etara

DOAN!

eta kitto!
euskara elkarteak

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua: 943 12 73 50
www.tinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. SERVICIOS
INDUSTRIALES
E.I.T.
TRATAMIENTOS
TECNOLÓGICOS
Y SERVICIOS
INFORMÁTICOS
AJIT Mantenime s.l.p.
Barrena, 6 - beheko ed.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitzanteko Zuhaitz

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK



Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa
Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16



ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com
24 orduko
urgentziak